

Altza

Euskararen Plan estrategikoa

Auzoan, Euskararen Plan Orokorrari Altzako Plan Estrategikoa gehituko zaio euskararen normalizazioa lortzeko. Hori dela eta, auzoa aitzindaria izango da normalizatze prozesuan. Inaxio Agirre Euskararen Udal Patronatuko zuzendaria eta Zigor Etxeburua kontseiluko kidea horri buruz mintzatu ziren hilaren 23an auzoan eskainitako hitzaldian.

Sara Soria 943-357037

Duela hainbat urte Bai Euskarari akordio eta konpromiso prozesua martxan jarri zen gizarte eragile nagusiekin, gizarteko erakundeekin alegia. Proiektu zabal hori herrietara eramatearen emaitza dugu Plan Orokorra. Altzan, euskalgintzako hainbat talde elkartu, eta

auzoak plan berezia behar zuela erabaki zuten. Horren ondorioz, Altzako Plan Estrategikoa jaio zen.

Zigor Etxeburua kontseiluko kidearen esanetan, "Altzan euskal hiztunen batez bestekoa txikia da, eta erabilera are urriagoa. Egoera kaxkar honen aurrean, euskaraz bizitzea oso zaila da. Horrez gain, euskararen aurkako jarrerak eta aurreritziak egon badaude. Beraz, plana esperientzia positiboa iruditu zitzaigun". Euskalgintzako taldeek Kontseiluaren baietza jaso ondoren, udalean aurkeztu zuten beren proiektua. Udalak baiezkkoa eman zuen baldin eta bi planak uztartzea

lortzen bazen: Plan Estrategikoa eta Plan Orokorra. Udaltxeak bost milioi pezeta agindu zituen bi urtetarako.

Bizarrain elkarte

Planak Udal Gobernu Bartzordeko talde politiko guztien onspena jaso zuen. Ondorioz, ekimena aurrera eramateko, euskalgintzako taldeek kultur elkarte bakarra sortu zuten: Bizarrain. Elkarte hainbat helbururekin jaio zen: euskararen normalizazio prozesua martxan jartzea, euskal hiztunak ez diren arteen euskararekiko sensibilizazioa lortzea eta euskararen aldeko gizarte giroa sortzea. Eta jakina, horretarako, gizartearen parte hartzea, ezinbestekotzat jo dute elkarteko kideek "Lankidetzaren hiztarmena idatzita eta sinatzeko prest dago", adierazi digu Bizarraingo bozeramaileak.

Bizarraingo kideen arabera, Plan Estrategikoak, ekarpen garrantzitsua egiten du. "Altzari begira egindako

**"Berdintasunean
elkarbizi
nahi dugu"
Inaxio Agirre**

Laster mendi
astea

Hilaren 11tik 14ra Mendi Astea egingo da Casares kultur etxean, Herrerako mendizaleak taldeak antolatuta. Besteak beste, lau hitzaldiz eta hainbat bideo emanaldiz gozatzeko aukera izango da. Antolatzaileek datozen egunetan jakinaraziko dute egitaraua. Beraz, argi ibili.

proiektua da. Altzaren dianoisia egingo da, eta konponbideak aztertuko dira. Gainera, konponbideak auzoaren ezauzgarri egokituko dira".

Balio erantsiak

Bestalde, Inaxio Agirre Euskararen Patronatuko zuzendariaren ustez, Plan Estrategikoak bi balio erantsi ditu. Alde batetik, alderdi guztiek onartu izana, denek eman baitzioten baiezkkoa planari. Bestetik, gizarte eragileek konpromisuak hartzeko bidea. "Pertsonak hizkuntzaz aldatzeko, bera kokatuta dagoen elkarte, entitate, enpresa eta bestelakoak, inguru hori euskaldundu behar da, eta horrek eragingo du hizkuntza aldaketa mailakatua. Izan ere, oso zaila da aldatzea, ohitura sakonak tartean dira eta", dio Inaxio Agirrek.

Bere esanetan, gizarteko erakunde euskalduntzeari auzotarren borondatea gehitu behar zaio. "Informazioa, inplikazioa eta motibazioa bultzatu behar dira euskal hiztunak ez diren arteen. Uler-tarazi behar zaie ez dugula haien ginetik egon nahi, berdintasunezko tratamenduan elkarbizi nahi dugu".



Beste lekuekin alderatuz gero, Altzan euskal hiztunen batez bestekoa txikia da.